



Elkartasuna josten

Elkarrizketa: Eneko Salinas
Maskarillak josi eta josi
Herriko proiektu berriak

Espero dugu, Itsasondo 2.0 aldizkaria zuen etxean izango denerako Koronabirus ditzosori aurre hartu izatea eta batez ere, zuek denak onik izatea.

Aste asko pasa dira, hilabeteak ere, koronabirusa gure bizitzan ate joka sartu zenetik...

Herriko aktualitate eta jardunaren jarraipena egin eta berri ematea izan da gure asmoa, aldizkariaren kaleratzearekin, ez dadila haria eten.

Herri moduan eta herri txiki moduan, ditugun azpiegitura eta zerbitzuen garrantziaz jabetzeko parada izan dugu, nolako garrantzia duen herrian denda, farmazia edo bestelako zerbitzuak izatea eta egunerokoan sarri superfizie handi eta herri haundietan gure erosketak egiteko joera badaukagu ere, herriak bizirik mantentzeko ezinbestekoa gertatzen da zerbitzu hauek erabili eta mantentzea.

Bolondresen lana eta prestutasuna goraiatu nahiko nuke, lehenengo unetik pertsona talde ahulenak babestu eta laguntzeko bolondres taldeak sortu dira, batetik beharrea daudenei laguntza praktikoa eskaintzeko baina batez ere pertsona heldu edo ahulezia egoeran daudenei adierazteko ez daudela bakarrik, komunitate sendo bateko parte ere badirela eta ez dugula inor bakarrik edo baztertuta uzteko asmorik.

Badirudi normaltasuna pixkanaka bueltatzen ari dela gure bizitzara eta orain gutxi arte garrantzi handirik ematen ez genizkion ekintzak egiteko irrikatan gaude, denbora luzez amari, aitari ematera ausartu ez garen muxu eta besarkada estua ematea, lagunekin hainbeste desiotako garagardoa hartzea, parkean lagunekin jolastea, hain hestu egin zaizkigun etxeko lau paretak alde batera utzi eta mendian zehar udaberriaz gozatuz ibilaldi bat egitea.

Txikiak gozatzen ikas dezagun, handiena horixe bai da, txikia handia da, gure herria bezala, txikitasunean handia. ■



Agurra



Aurkibidea

- 03-04 **Udaleko berriak**
- 05 **Haurreskola**
- 06 **Eskola**
- 07 **Natura**
- 08-09 **Bolondresak**
- 10-11 **Maskarillak**
- 12-13 **Kronikak**
- 14-17 **Elkarrizketa:** Eneko Salinas
- 18 **Informatika**
- 19 **Elkarrizketa:** Ane Plazaola
- 20-21 **Proiektuak**
- 22-23 **Puntu beltzak**
- 24-26 **Hemeroteka**
- 27 **Errezeta / Euskararen atala**
- 28 **Oharrak / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Mando baten gainean*

Aurtengo udaberria berezia guztiz mundu osoa jarri duena angustiaz, etxean sartu eta eskuak maiz bustiz ahoa estalita ezin esan bost hitz, balkoian goza behar izar ta eguzkiz.

Baina udaletxeak lanen aldarria aurkeztu eta martxan digunez jarria: pasonibela eta eskola berria, Elordi zelaiairi zainduaz neurria Errenta izango da euskaragarria.

Liburutegirako guztion jarrera arau eta aholkuz hemendik aurrera; herritar baten hitza eta izaera Eneko Salinasek izan du aukera, kontu interesgarritz dator aurkeztera.

Udaleko berriak

Jarraian 2020ko lehen hiruhilekoan udalak hartu dituen erabaki eta tramitatutako espedienteen berri emango da:



UDAL BATZARRAK

Martxoaren 10ean udalak egindako osoko bilkuran, honako erabaki hauek hartu zituen:

- 2020ko udal aurrekontua 988.600 €ko zenbatekoarekin onartu zen 2019ko abenduaren 9ko batzarrean.
- 2019ko urteko kontuen likidazioaren gerakina erabilia, 2020ko udal aurrekontuarekin egin nahi diren beste zenbait obra eta zerbitzu finantziatzeko 1. Zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea onartu da martxoaren 10ean. Horren ondorioz, 2020ko udal aurrekontuak 1.200.350 €ko zenbatekoa izango du. Inbertsioetarako izendatutako zenbatekoa, guztira, 468.500 €koa izango da; aurrekontu osoaren %39, alegia.
- Itsasondoko Udalak zenbait dirulaguntza banatzen ditu udal aurrekontuen baitan. Dirulaguntza horien kudeaketa jasotzen duen 2020-2022 urte bitarteko Plan Estrategikoa onartu da, eta jendaurrean jarrita dago, nahi dutenen proposamenak aurkezteko. Erreklamaziorik izaten ez bada, plana bere osotasunean argitaratuko da.
- Itsasondoko Udalak Murumendiko Lotura Eredu eta Korridoreko Jarraitasun ekologikoa hobetzeko ekimenak egiten jarraitzen du. Proiektu hori finantziatzeko dirulaguntza garrantzitsuak lortu dira, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak 2018an 35.720 € bideratu zituen, eta egin beharreko inbertsioen artean Lur sailen erosketa aurreikusten da. Hori dela eta, zenbait negozioz egin ondoren, Lizardi-goiko baserrikoak diren zazpi hektareak osatzen duten lur sailen salerosketa adostu da, eta martxoak 10eko udal bilkuran onartu da tramitatutako espedientea.
- Kaxintane tabernaren ustiaketakoa epealdia amaitzeaz da goenez, deialdi berri bat egitea erabaki da, eta deialdia arautuko duten oinarriak onartu dira. Covid 19 pandemiaren ondorioz hartu diren erabakiek prozedura atzeratzea ekarri dute, beraz, alarma egoera amaitzen denean, prozedura honi helduko zaio, eskaerak aurkezteko deialdia egiteko.

- Itsasondoko Herri eskola berriaren eraikuntza egiteko lur sailak aukeratu dira. Eraikuntza gaur egun Herri Eskolak hartzen duen lur saila eta ondoan ekipamendurako izendaturik dagoen eremua hartuta egitea erabaki da. Eraikuntza lanak Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko dituela agindu du, eta udalari beharrezko lur sailak bere esku jartzea eskatu dio.
- Arrazoi horregatik, Hiri Antolaketa Planean ekipamendurako izendaturik dagoen lur saila eskuratzeko, 2. Biltegi Jarduketa Integratuaren urbanizatzeko jarduketa programa onartu eta jendaurrean egon da. Jendaurreko epean erreklamaziorik ez da izan, eta udalak 2020ko martxoaren 10eko bilkuran, behin betiko onartzea erabaki du.
- Orain zuzeneko okupazioa gauzatzeko tramiteak egin behar dira, udalak lur sailak eskuratu eta Jaurlaritzari eskaini ahal izateko.

ELORDI ZELAIAREN EROSKETA

Oria ibaiaren enkauzamendu lanak amaitu ondoren, Oria ibaiak okupatzen zituen lur sailak eskuratzeko ahaleginean aritu da Udala azken urteetan. Hasieran, Elordi izeneko lur sail horiek, baldintzatutako lagapen bidez, udalari ematea erabaki zuen Estatuko Ogasun eta Finantza ordezkariak. Halere, Itsasondoko Udalak, enkauzamenduko lanak egiterakoan, burututako desjabetza eta lur sailen erosketagatik, inbertsio garrantzitsuak egin behar izan zituela jabetuta, otsailean jasotako proposamenean, udalari salmenta zuzenean ematea adostu da. Bi sailak eskuratu ditu Itsasondoko Udalak, adostutako prezioan:

- 2348 m²ko azalera duen saila, 2.348 €an.
- 7573 m²ko azalera duen saila, 7.573 €an.

Aukera egokia da udalak eremu horietan egin nahi dituen proiektuetarako.

ALKATE DEKRETUAK

- Fakturen zenbatekoak:
 - Urtarrilean jasotako fakturen zenbatekoa: 9.314,77 €.
 - Otsailean jasotako fakturen zenbatekoa: 39.220,93 €.
 - Martxoan jasotako fakturen zenbatekoa: 49.767,91 €.
- Udaletxeko kulturgunea eta lokalak erabiltzeko, herriko el-karte, partikular eta eragileen partetik 11 eskari izan dira.
- 2019ko laugarren hiruhilabeteko ur errolda onartu da, 15.938 €ko zenbatekoarekin.
- 2020ko Ibilgailuen gaineko erroldaren zenbatekoa, 55.338,80 €, onartu da.
- 2020ko lehen lauhilabeteko zabor bilketako erroldak 16.080,84 €ko zenbatekoa du.
- 2020ko lehen lauhilabeteko zabor bilketa zerbitzuko tasaren kobrantza eta 2020ko lehen hiruhilabeteko ur hornidura zerbitzuko tasaren errezioben kobrantzari dagozkion erreziiboak, alarma egoera amaitu ondoren kobratuko dira, orduan jakinaraziko diren epe berrietan.
- Ondasun higiezin OHZ gaineko zergak borondatezko al-dian ordaintzeko epeak 2020ko abuztuaren 1etik 2020ko irailaren 15era atzeratu ditu Foru Aldundiak.
- Obra txikien baimenak tramitatu dira; guztira, zazpi.
- Hutsik dauden eta %50eko errekarua izango duten etxebizitzan zerranda onartu da.
- Gizarte larrietarako bederatzia espediente onartu dira.
- Hirilurren balio gaineko hamabost espediente tramitatu dira.
- Hutsik zegoen Aguazil laguntzaile baten lanpostua oposaketa-lehiaketa bidez betetzeko tramitazioa amaitu da, eta puntu gehien lortu dituen izangaia kontratatzea erabaki da. Gustavo Beorlegi du izena, eta martxoaren 23tik lanean da aguazil laguntzaile lanpostuan.
- Udal langileei soldatak %2 igotzea erabaki da.
- Udal tasetan laguntzak emateko bi espediente onartu dira.
- 2020ko lehen sei hilekoan gazteekin aritzeko bi begirale kontratatzea erabaki da.
- Aldundiko kontratazio departamentuak proposatutako posta espedientea amaitu da, eta Gureak eta Correosi esleitu zaie zerbitzua.
- Hilerrian kontzesioak emateko, hiru espediente bideratu dira.
- Eraikinen ikuskaritza teknikoaren bi espediente tramitatu dira.
- Gizarte langile berria dugu 2020ko martxotik, gizarte langile berriak Sheila du izena, eta lehen bezala asteazkenean udaletxean izango da, aurrez ordua hartuta. Behin betiko kontratua du, udaletxean lanpostua duen gizarte langilearen ordezkapen gisa kontratatu delako.

EREIN DEIALDIA

Europak dirulaguntzak emateko argitaratzen dituen programa garrantzitsuenetako bat da EREIN izena duena. 2020ko deialdia aprobetxatuz, proiektu bat erredaktatu da Itsasondoko hainbat baserri Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren sareko urez hornitzeko. Guztira, proiektu horren bidez Itsasondoko 37 baserrietarako ur hornidura sarea hobetuko da, ur edangarria eta beharrezko baldintzak betetzen dituen jasotzea bermatzeko. Proiektua finantziatzeko beste zenbait dirulaguntza jasotzeko tramiteak ere burutu dira. Guztira proiektuak 766.335,19 €ko zenbatekoa dauka, eta aurrekontu osoaren %60 dirulaguntza bidez jasotzea da udalak duen aurreikuspena.

Beste zenbait erabaki:

2019ko urteko aurrekontuaren likidazioa onartu da emaitza honekin:

2019ko abenduak 31an dagoena	488.230,48 €
Kobratzeko dagoena	167.159,55 €
Ordaintzeko dagoena	47.973,99 €
Gerakina	607.416,04 €

DIRULAGUNTZAK

Eskatutakoak

- Herri eskolan arriskua duten zenbait gune egokitzeko.
- Itsasaga eta Iraola aldeko pistan sortutako luiziak konpontzeko.
- Partaidetza sustatzeko, Jolas eremua-parkea berritzeko proiektua.

Jasotakoak

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak honakoak bideratu ditu:

Murumendiko Lotura Eremu eta Korridoreko jarraitutasun ekologikoa hobetzeko ekimenak izeneko proiektua gauzatzeko 24.842,50 €ko laguntza.

Eskola Agenda 21 programa gauzatzeko 666 €. Errota frontoiko komunak irisgarri egiteko 29.785 €, aurrekontuaren %50.

GI 2131 errepedeko espaloia (Gure ametxa etxearen inguruan) berritzeko 39.800,65 €, aurrekontuaren %50. ■



Kanpo espazioaren onurak

Azken asteetan bizi izan dugun egoera honetan, Koronabirusa dela-eta, denok gure etxeetan “isolaturik” gaude. Konturatuko ginen dagoeneko zein beharrezkoa dugun eguzkia gure azalean sentitzea, txorien kantua entzutea edo, besterik gabe, oinez buelta bat ematea. Honekin nabarmendu nahi dugu kanpo espazioak gure haurreskolako haurren egunerokotasunean duten garrantzia.

Haurrek eta haurtxoek kalean eta naturarekin harremanetan egon beharko lukete, txiki-txikitatik ingurunearekin elkar-eragiteko. Itsasondoko haurreskolan, kanpo espazio txiki bat dugu. Bertan ditugu txirrista, tunela, etxetxo eta beste hainbat material. Eguraldiak laguntzen digun guztietan irekitzen dugu kanpo espazioko atea, eta haurrek erabakitzen dute barruan edo kanpoan egon nahi duten. Bestalde, txikienei koltxoneta bat ateratzen diegu, eta bertan egoteko aukera izaten dute: mugimendu libreak landuz, esploratuz, hainbat soinu entzunez, haizea sentituz...

Jaiotzen denetik, haur batek mugimendua behar du. Haurrak jolasean dabiltzan bitartean mugitzen dira; bai barruan, bai kanpoan.

Kanpoan denbora igarotzeak onura asko ditu:

- **Osasuna:** Eremu itxietan baino arnasketa-gaixotasun gutxiago transmititzen dira. Espazio irekietan denbora gehiago pasatzen badugu, immunitate-sistema ere indartu egiten da. Era berean, aire librean bakterio gutxiago daudela nabarmendu behar da, beraz, gutxiago gaixotuko da haurra. Gainera, kontuan izan behar dugu haurraren garunak heldu batenak baino oxigeno gehiago behar duela.
- **Sormena:** ezusteko faktorea erabakigarria da jokoetan, ezin baita ingurua kontrolatu.
- **Autonomia:** aire librean jolastu ohi duen haurra autonomoagoa eta independenteagoa da. Horrela, arazoei aurre egiteko eta bere kabuz konponbideak aurkitzeko gai izango da.
- **Harremanak:** haurren arteko elkarreraginei eragiten die.



Kanpoko munduarekin duen harremana bost zentzumenekin esperimendatzen lagunduko dio haurrari.

Aipatutako guztiak arlo hauetan eragiten du:

- **Kognitiboa:** behatzeko, aztertzeko eta arrazoiatzeko gaitasuna zabaltzen du. Horrela, beraien garapen intelektuala eta zentzumenak estimulatzen ditu.
- **Emozionala:** haurrek komunikatzeko, negoziatzeko, partekatzeko, kooperatzeko, koordinatzeko... gaitasuna izan dezaten, hastapen bat da.
- **Fisikoa:** ona da gorputzarentzat, lasaitzen eta osasuntsuago egoten laguntzen dio; eta, horrela, ikaskuntza intelektuala errazten du.

Azken batean, kanpo espazio egoki batek jolasa sustatzen du, interakzioa. Horrez gain, jakin-mina eta autonomia ere indartzen ditu, eta autoestimua eta osasun fisikoa mesedetzen ditu. ■

Urkiye eskolako inauteriak

Otsailaren 22an, ostegun gizen egunez, Urkiye Herri Eskolakoak herriko plazara irten ginen, eta gure inauteri txikiak ospatu genituen.

Eskola ikasturte honetan, egunkaria hartu da oinarri; eta gure festan ere, proiektua borobildu nahian, horixe izan genuen funtsa. Baina inauteriei dagokien moduan, parodiaren bitartez egin genuen.

Honetarako, hiru aurkezle paregabe izan genituen. (1. argazkia)

Eskola txiki bezala, aniztasunean oinarrituz, hainbat talde osatu genituen. Gure txikienek, bi urte dituztenek, beti taldeetan egin zuten dantza, irakaslearekin batera. Betiko moduan, irribarreari ezin eutsi ibili ginen. (2. argazkia)

Gai mamitsuak landu ziren; esate baterako, eskola berriaren proiektua, eskola zaharraren agurrarekin batera. Eskola zaharra mantentzeko nahia adierazi zen; eta, horretarako, aldarrikapen bat ere egin zen. (3. argazkia)

Beste pasarte batean, Urkiye eskolako haurrek partida bat jokatu zuten Legorretako taldearen kontra. Izan ere, Urkiye eskolak taldea sortu du eskola kirolean, eta hura plazaratzeko ere momentu egokia izan zen. Gaiari tiraka, lehiakortasunak eragiten dituen jarrereri buruzko parodia ezin hobea egin zuten, guztien algarak sortuz. (4. argazkia)

Bukaera paregabea eman zitzaion jaiari, Huntza taldearen kontzertuarekin. Guraso, haur eta irakasleek bat eginda, dantzatzen amaitu genuen. (5-6. argazkia)

Ekitaldi xume eta esanguratsu honen aurretik egindako lana nabarmendu nahi genuke; batik bat, haurren lana, beraiek izan baitziren ekitaldia prestatu eta bertan parte hartu zutenak. Eskerrak irakasle taldeari ere, beraien jarrera eta lanagatik. Ondo gozatutako ekitaldia izan zen. ■



Itsasondoko perretxiku bereziak

Itsasondoko mendian, jangarriak diren onddoen ekoizpenaren jarraipena egiteaz gain, Aranzadiko mikologia saileko eta Euskal Herriko Unibertsitateko adituekin aurkitzen diren perretxikoen katalogoa osatzen ari gara. Horien artean daude mehatxatuak, galtzeko arriskuan edo Euskadiko Zerrenda Gorrian daudenak.

Lehendabiziko urte honetan 127 onddo espezie aurkitu dira, eta horietako bost oso bereziak dira, jarraian ikusiko dugun bezala.



Cantharellus ianthinoxanthus

Ziza-horien antza du, baina tonu hori-mo-reak izaten ditu.

Orain arte, Euskal Herriko hiru ingurutan

bakarrik ezagutzen zen: Añarbe, Gorbeia eta Zalaman, beti baso hezeetan. Zerrenda gorrian, galtzeko arriskuan dauden artean, dago.

Europa mailan ere oso arraroa da, nahiz eta han eta hemen azal daitekeen, beti ere baso zabaletan. Jangarri ona.



Dendropolyporus umbellatus

Espezie hau Gipuzkoan aurkitzen den lehen aldia da. Ez da espezie mehatxatuaren zerrendan sartzen; izan ere,

espezie arraroa da, baina ondo banatuta dago Arabako mendietan eta Nafarroako Pirinioetan, Orreagatik ekialdera.

Landatu eta merkaturatu egiten da, bere haragia zuntzezkoa da, atsegina bere usaina eta gozoa bere zaporea, amaiera mineral mingots batekin.

Laguntzaile ona da gernu arazoetan, nefritis eta giltzurruneko harrietarako.



Hygrophorus mesotephrus

Hau ere Gipuzkoan lehen aldiz aurkitu den perretxiko bat da, Euskal Herri osoan da arraroa, eta Europa

mailako zerrenda gorrian ere badago.

Kapel gris-berdexka eta likatsua du, oina bezala. Eta lamina zuriak, dekurrenteak.

Pagadietan bakarrik aurkitzen da, eta Nafarroan ere Pirinotako pagadietaraino joan behar da aurkitzeko.

Haragi fina, biguna, zuria eta zapora eta usain beziririk gabea.



Russula virescens

Gibelurdin hau basoetan aurkitzen da, baina leku irekietan, argi pixka bat sartzen denetan.

Jangarri ona izanik, oso preziatua da, eta mikologo adituen iritziz, azken urteetan asko gutxitu den espeziea da.

Hori dela eta, Euskal Herriko zerrenda gorrian sartu da, zaurgarrien kategorian.

Oso preziatua da, baina kontuz ibili behar da hilgarria den *Amanita phalloides*-ekin ez nahasteko.



Strobilomyces strobilaceus

Kolore beltza duela eta, ezagutzen erraza den boletazeo atipiko hau Euskal Herrian zehar banatuta aurkitzen

da.

Hala izanik ere, espezie honek fruitu handiak ematen dituzten populazio txikiak ditu, eta gero eta gutxiago ikusten da.

Hori dela eta, euskal zerrenda gorrian kalteberen kategorian sartuta dago.

Koronabirus gaitzari aurre egiteko agintariak etxetik ateratzeko debekua ezarri zutenetik, erosketak etxeko atarian jaso dituzte birusaren aurrean babes handiena behar duten herritarrek. Orotara, hamasei erabiltzailek eskatu dute zerbitzua, eta 21 laguneko boluntario sareak koordinatu ditu erosketak.



Erosketak etxez etxe, segurtasun osoz

Nekez ahaztuko dute itsasondoarrek 2020ko martxoaren 15a, egun eguzkitsu bezain iluna. Konfinamenduaren lehen eguna. Koronabirusa hedatu ez zedin, etxetik ez irteteko agindua eman zuten agintariak, ez bazen lanera joateko, erosketak egiteko edota beharrezko eginbeharretarako. Gerora, hasierako neurri horiek gehiago zorrotzu ziren; eta, bat-batean, itsasondoarren bizimodua aldatu zen.

Pandemia ate-joka zetorren, eta neurri zorrotzak hartu behar, birusa zabalduko ez bazen. Urgentziatzko bilera egin zuten EH Bilduko alkate eta zinegotziek asteburu horretan bertan. Koronabirusak eragindako ezohiko egoerari aurre egiteko hainbat neurri hartzea erabaki zuten bilera hartan. Besteren artean, egoera zaurgarrienean egon zitezkeen eta birusaren aurrean babes handiena behar zuten herritarrei laguntzea. Hala, herritar horiek erosketak eta premiazko gaiak etxeko atean jasotzeko zerbitzua abian jartzea erabaki zen, boluntarioen bidez.

Boluntario poltsa sortzeko deialdia zabaldu orduko izena eman zuen jendeak, eta horrelaxe sortu zen boluntario sarea. Lantalde horri esker, egunero-egunero euren etxeko atean izan ditu erosketak zerbitzua hala eskatu duen herritar orok. Koronabirusaren mamua Goierri aldera hedatu artean izan zen hori. Ondoren, egoera aldatu zela ikusita, eta kutsatze arriskuak murrizte aldera, astean hiru egunez banatu dira erosketak. Orotara, hamasei herritarrek eskatu dute erosketak etxeraino eramatea, eta 21 boluntario aritu dira telefono deiak egiten, eta jakiak, botikak eta bestelako gauzak erosi eta etxeetan banatzen.

Egoera zaurgarrian dauden herritarrek babestea, haiei laguntza eskaintzea eta herritar multzo horren oinarritzko premia asetzeko laguntza eskaintzea izan da hasieratik EH Bilduko udal taldearen helburua. Gauzak horrela, etxetik ateratzeko debekua ezarri eta hurrengo egunean, martxoaren 16an, 70 urtetik gorako herritar guzti-guztiei dei egin zitzaion jakinarazteko etxeko erosketen banaketa zerbitzua antolatu zela herrian, eta ea nahi ote zuten boluntarioek erosketak egin eta etxeko atera eramatea. Oro har, denek atseginez hartu zuten ekimena, eta hainbatek erosketak etxera eramateko zerbitzua erabiltzeko hautua egin zuten. Hurrengo egunean, martxoaren 17an, lehen erosketak jaso zituzten hala eskatu zuten guztiek.

Arratsaldero, boluntarioen deia jaso dute erosketak etxean jaso nahi izan zituzten herritarrek, hurrengo egunean behar zituzten erosketen zerrenda eskatzeko. Lurdes janari dendaratik zein farmaziatik behar dutena eska dezakete. Hurrengo egunean, erosketak egin eta etxera eramaten zaizkie, eguerdia baino lehen.

Bestalde, asteartetan, arrain freskoa ekartzen du Ondarroatik Jose Antonio Maruri arrain saltzaileak, eta erosketekin batera, arraina ere eramaten zaie, hala nahi dutenei. Astean behin, berriz, haragia eskatzeko aukera dute etxetik atera ezin dutenek. Haragiaren eskaera egun batzuk lehenago jasotzen dute deiak egiten zituzten boluntarioek; eta, ondoren, Ordiziatik ekartzen zaie, hutsen ontziratuta, denboratxo batean fresko eta egoera onean mantentzen dadin haragia.



Lan horiek egiteko, higiene neurri zorrotzak hartzen dituzte boluntarioek: erosketak egin aurretik, eskuak garbitzen dituzte, baita erosketak egin ondoren ere. Era berean, erosketak eta entregak egiteko, eskularruak eta maskarak erabiltzen dituzte. Eskularruak, maskarak zein beharrezko materiala udalak ematen dizkie boluntarioei. Boluntario-banatzailleek eta herritarrek ez dute aurrez aurreko kontakturik izaten; erosketak etxeko atean utzi, eta martxa egiten baitu boluntarioak. Era horretan, aurrez aurreko harremana saihestu nahi da. Horretarako, etxe azpira iristean, telefonoz deitzen dio boluntarioak erabiltzaileari, eta atea irekitzeko eskatu, erosketak atarian uzteko.

Erosketak ez dira uanean bertan ordaintzen, egoera bare-tutakoan egingo dira ordainketa denak. Janari dendarekin zein farmaziarekin hitzartu du udalak ordainketa sistema hori. Hala, egunero erosketen tiketak gordeko dira janari dendan zein farmazian, eta egoera bere onera etortzen denean, ordainduko du bakoitzak zor duena. Egoera luzatuko balitz, ordaintzeko beste sistemaren bat adostuko litzateke janari dendako zein farmaziako jabeekin.

Martxoaren 16an, 70 urtetik gorako herritarrekin hasitako deien txandak jarraipena izan zuen, eta herrian egoera larriagoan egon zitezkeen beste familiak detektatzeko aritu zen udal taldea, gizarte langilearen laguntzaz. Azken batean, beharra duen edonori laguntzea da ekimenaren helburua. Inork zerbitzua jasotzeko beharra izango balu, 644-98 44 67 telefonora dei dezake.

Bestalde, etxean behar adina diru-sarrera ez duten eta janari bankutik elikagaiak jasotzen dituzten familiei ere bermatu zaie hornikuntza hori, janari bankutik jakiak ekarri eta elikagai freskoak udalak finantziatuz. Udaleko gizarte langilearen laguntzarekin eta aholkuarekin koordinatu da lan hori, eta, etxeko zerbitzua bezala, boluntarioen bidez egin da jakien banaketa.

Hilabete luzea igaro da erosketen etxeko banaketa zerbitzua martxan jarri zenetik, eta, denbora honetan, esker oneko hitzak eta laudorioak baino ez dituzte izan erabiltzaileek boluntarioentzat. Egoera ezohiko eta larri honen aurrean, diruz ordaindu ezin den zerbitzua da helduekiko halako kezka azaldu izana, modu horretan zaindu eta lagundu izana. Hala adierazi dute hainbat erabiltzailek. Ikaragarri estimatu dute herritarrek eurengatik egin duten guztia. Aspalditik etxean dira, bakarrik, atera ezinda, eta herritar talde bat haietaz kezkatuta egotea, erosketak egin eta etxera banatzeko prest izatea, eta lan hori gustura eta pozik egiten dutela jakiteak poz ematen diete. Herritarrek babesten dituztela sentitzen dute; eta, horrek, bakardade sentipena gutxitzen die.

Ekimen hauekin guztiekin egoera zaugarrian dauden herritarrengana iristea izan da udal taldearen helburua. Ezohiko egoera honetan, herritarren artean egon zitezkeen zalantzak, kezak eta ezinegonak argitzea eta baretzea ere bazen, ordea, EH Bildu taldearen asmoa, eta, horretarako, egoera zailean egon zitezkeen pertsonen laguntzeko telefono zerbitzua jarri zuen herritarren eskura. Udaleko harrera ordu-tegian (08:30etik 13:30era) udaletxera dei dezake beharra duen edonork; **943-88 11 70** da udaletxeko telefonoa. Deitzeko beharra arratsaldean sortuz gero, **644-984-467** telefonoa jarri zen herritarren eskura; telefono horretara 20:00ak bitartean dei daiteke.

Hartutako erabaki berezi hauen helburua izan da itsasondoar guztien ongizatea eta osasuna bermatzea. EH Bilduko kideen ustez, ezinbestekoa da herritar orenen prestasuna eta elkartasuna ezohiko egoera honi aurre egiteko. Izan ere, indarrak batuta eta guztion artean errazago egingo zaio aurre egoera zail honi. Beste behin ere, herritarrek zintzo eta azkar erantzun dute, eta herriaren batasuna agerian geratu da. ■



Maskarak, josi eta josi

Koronabirusetik babesteko, maskarak egiten dihardute Goierriko ehun jostun inguru; haien artean dira hainbat itsasondoar ere. Ekimena martxan jarri zenetik, ehunka maskara egin dituzte etxeko epelean, gaitzetik babesteko premia duen jendearentzat. Gutxienez, 3.200 maskara egin dira dagoeneko.





Oso birus kutsakorra da koronabirusa edo COVID-19a; erraz hedatzen den gaitza da. Horregatik, nekatu arte gogorarazi dute medikuek eta adituek garbitasun on bat mantentzea eta babes neurriak hartzea ezinbestekoa dela. Gaixotasuna hona gerturatzen hasi zenean, berehala agortu ziren farmazietan eta dendetan alkohol-oinarria duten eskuetako gel desinfektatzaileak, eskularruak, maskarak eta babesteko behar ziren gainerako produktuak. Ospitaleetan ere babesteko tresneriaren falta sumatzen hasi ziren berehala.

Errealitate horren aurrean, maskarak eta bestelako babes tresnak egiteko ekimenak hasi ziren loratzen hanhemenka, baita Goierriin ere. Beste hainbat herritan bezala, maskarak egiteko ekimena jarri zen abian Goierri eskualdean.

Etzetik ateratzeko debekua iragarri zuten asteburuan bertan, Goierriko egitasmoa abian jarri zuen boluntario batek entzun zuen Irungo emakume bat maskarak egiten hasi zela, eta egunean 50 egiten zituela –boluntarioak ez du izena eman nahi izan, herritik sortu den ekimen bat izan delako—. Jostun bakarra hainbeste maskara egiteko gai bazen, Goierriin ere antzeko zerbait egin zitekeela pentsatu zuen. Pentsatu, eta egin, Ordiziako oihal denda eta mertzeria batekin, Itsasondoko zein Ordiziako Udalekin eta DYArekin lehen kontaktuak egin zituen. Ekimena bideragarria zela ikustean, deialdia zabaldu zuen Whatsapp bidez.

Jendearen erantzuna eta laguntzeko borondatea txalagarria, hunkigarria eta ereduagarria izan dela dio ekimena abian jarri zuen boluntarioak. Deialdia egiterako, herritar asko lanean ziren, euren ingurukoentzako maskarak egiteko prestu. Eta josten abilezia duten beste herritar askok deialdia egin orduko josteko makina hartu, eta maskarak egiteari ekin zioten; askok etxeetan zituzten oihal zatiekien eta hariekin.

Denbora gutxian, ehun jostun jarri ziren etzetik lanean, eta lehen 500 maskarak erabiltzeko prest ziren. Whatsapp bidez baino ez zuten zabaldu deialdia; ez zen beste komunikatzeko bitartekorik erabili behar izan, deia zabaldu orduko material baino jostun gehiago baitzegoen.

Hainbat herritako herritarrek osatu dute jostunen sarea: Itsasondo, Ataun, Beasain, Idiazabal, Legazpi, Legorreta, Ordizia, Segura, Urretxu eta Zumarraga. Izena ematean, helbide elektronikoa utzi zuten, eta jostun guztiei maskarak egiteko argibide zehatzak bidali zitzaizkien posta elektronikoz: patroiak, bideoak, garbitu eta desinfektatzeko jarraitu beharreko pausoak...

Josten jakin ez, baina laguntzeko gogo falta ez zuten herritarrek ere jarri nahi izan zuten euren aletxoak ekimen honetan. Hala, beste hainbatek bestelako modu batean egin zuten euren ekarpena: oihala eta josteko beharrezko materiala dohaintzan eman zuten hainbat dendek, kasurako. Denda batek, adibidez, 1.000 maskara inguru egiteko adina oihal eman zuen oparitan. Maskarak egiteko material guztia Goierriko dendetan erosi da, eta saltoki askok beherapenak egiten dizkiete materiala erostera joan diren boluntarioei. Izan da maskarak egiteko oihala mozten laguntzeko prest agertu den jendea, edo josteko makina uzteko prestasuna erakutsi duenik ere.

Ekimen hau hezur-mamitzeko ezinbestekoa izan da boluntario eskuzabalen lan eskerga. Sei boluntario aritu dira jostunen etxeetara maskarak egiteko beharrezko materiala banatzen; eta, behin maskarak eginda, haiek biltzen. Lau itsasondoar eta bi ordiziar ibili dira zeregine horietan, batera eta bestera. Hasiera batean, DYAK hartu zituen bere gain ardura horiek, baina, ekimena abian jarzterako, lanez gainezka zeudela aitortu zuten, eta boluntario sarearen esku utzi zituzten ardurak. Egoera zailaren aurrean, ekimenari bultzadatzeko emateko ezinbestekoa izan zen Ordiziako Ana Mari Fernandez eta Santiaga Barrerosen laguntza.

Bestalde, boluntarioez gain, hainbat udalek ere laguntza eskaini dute, hasiera-hasieratik. Ekimenen erabateko inplikazioa erakutsi duten udalen artean daude Itsasondokoa, Ordiziakoa eta Legorretakoa, besteak beste. Segurako eta Idiazabalgo Udalek ere erabateko babesa erakutsi eta laguntza eman diete euren herrietan maskarak egiteko sortu diren taldeei.

Azkenik, Gurutze Gorriak eskainitako laguntza ere aipatzekoa da, haiek arduratu baitira jostunek egindako maskarak desinfektatzeaz. Jostun profesionalak zein partikularrek jositako maskara horiek Goierri eskualdean banatu dira, jende aurrean zein jendearen zerbitzura lan egiten dutenen artean: dendariak, udal langileak, zahar egoitzetako langileak, boluntarioak, lantokietako langileak, arriskuko pertsonen zaintzan aritzen direnak... DYAKo eta Gurutze Gorriko langileek diotenez, eskuz egindako maskara horiek ez dira %100 eraginkorrak koronabirusaren aurrean, baina nolabaiteko babesa ematen dute, eta aurpegian ezer eramatea baino hobea da. Izan ere, gaitz kutsakor honi aurre egiteko edozein neurri asko izan daiteke. Etxean egindako hauek, gainera, berberagarriak dira, kalean ikusten diren maskarilla gehienak ez bezala. ■

Konfinamendu kronikak



Jone Iturrioz



Joxe Luis Aranburu



Zeinekin eta non pasa duzu(e) konfinamendua?

Joxe Luis Aranburu naiz, Itsasondoko udal langilea. Konfinamendua etxean bizi garen lau lagunok ari gara pasatzen: gurasoak, anaia eta ni.

Azaldu zuen eguneroko bat nola izan den?

Ni egunero joaten naiz udaletxera lanera, eta gurasoak irten beharrik izan ez dezaten, erosketak anaiak egiten ditu. Asteburuetan, neu joaten naiz dendara erosketak egitera.

Nire egunerokoa ez da hainbeste aldatu, jaieguna izan ezik. Etxean egoteko denbora gehiago dugunez, beti jaso eta jaso egiten ditugun dokumentu, traste eta halakoak txukuntzen eta botatzen aritu naiz, bide batez, gela puxka bat garbituz.

Egin duzun gauza bereziarena zein izan da?

Nire denbora-pasak bi alde izan ditu: bat bakarkakoa, eta hor, batik bat, irakurtzen aritu naiz, Interneten saltseatzen jarduteaz gain; eta, bigarrenik, gurasoak entrenitzen saiatu naiz, bideo edo ikuskizun batzuk telebistan jarrita.

Beldurrik izan duzu konfinamendu egoeran? Zergatik?

Nigatik ez dut beldurrik, baina gurasoko helduak direnez eta egunero kanpora irteten naizenez, beraiengatik saiatu naiz ahalik eta neurri zorrotzenak jarraitzen.

Egoera honetan, zer egin zaizu gogokoen eta zer egin zaizu desatsegina?

Egunero lanera sartu aurretik, Kaxintanen, egunkari irakurri, hartzen nuen kafea izan da faltan gehien sumatu dudana. Noski, asteburuetako sagardotegiko bisitak ahaztu gabe.

Beste zerbait gehitu nahiko zenuke/te?

Alde positibotik begiratuta, uste dut gaixotasuna erakusten ari zaigula ez garelako mundu honetako jaun eta jabeak. Ea hemendik aurrera pertsonen umiltasunak irabazten duen, gure jarrera harroak bazterrean utzita.

Animo! Eta eutsi goiari! ■

Zeinekin eta non pasa duzu(e) konfinamendua?

Etxeko lauok batera pasatu dugu konfinamendua Itsasondon. Inork ez du sintomarik izan, eta hori lasaigarria da. Kalera atera ezin bagara ere, egunero balkoian egon, haize pixka bat hartu eta ingurua ikustea lagungarria izan da.

Azaldu zuen ohiko egun bat nola izan den.

Saiatu naiz egunerokotasun bat jarraitzen; eta, denbora faltagatik-edo, kolokan nituen zenbait gauza egiteko aprobetxatzen. Ikasten, etxeko lanak egiten, liburuak irakurtzen, marrazten, kirola egiten eta telesailen bat ikusten igaro dut egunerokoa, baita normaltasunera bueltatzen garenean zer egingo dudan pentsatzen ere.

Egin duzun gauza bereziarena zein izan da?

Kontzerturen bat online ikusi dut, baina gauza bereziarena boluntario taldean parte hartzea izan da. Oso aberasgarria da jendearen esker ona sentitzea, baita egoera desberdinetan daudenak egun hauek nola igarotzen ari diren jakitea eta ahal den heinean laguntzea ere. Txalotzekoa da boluntario talde osoaren antolaketa eta behar duten pertsonetikogotutasuna.

Beldurrik izan duzu konfinamendu egoeran? Zergatik?

Ez dut beldurrik izan, etxekoak arrisku taldeetatik kanpo daude, eta horrek lasaitasuna eman dit. Egia da egoera ezezagonkor honetan ezin dela inoiz jakin, baina ahalik eta positiboen hartzen saiatu naiz gertatzen ari den hau guztia.

Egoera honetan, zer izan duzu gogokoen eta zer egin zaizu desatsegina?

Atsegina etxekoez gozatzeko denbora izatea eta gauza txikiak ematen duten zoriona baloratzea izan da. Desatsegina, berriz, jende asko bizitzen ari dena ikustea da: psikologikoki, beldurragatik, ekonomikoki, inguruko norbait galdu dutelako... Baita gertuko jendea pantaila baten atzean ikusi beharra, eta berriz elkar noiz ikusiko dugun ez jakitea ere.

Laburtu hitz batean konfinamendua?

Luzea

Beste zerbait gehitu nahiko zenuke(te)?

Uste dut garrantzitsua dela norberak ahal duen hoberen kudeatzea egoera, eta jakitea ez dela lehiaketa bat. Askotan ematen du zenbat eta kirol gehiago egin, gehiago marraztu, bideo-dei gehiago egin, produktiboago izan, orduan eta hobe dela. Eta ez da horrela. Denbora asko daramagu horrela, eta osasun mentalak ere asko balio du. Animo Itsasondo, eta eutsi! ■



Lurdes Aranburu

Zeinekin eta non pasa duzu(e) konfinamendua?

Egia esan, dendan pasatu ditut konfinamenduko ordu gehienak, baina etxean egon behar izan dudanean, bikotekidearekin egon naiz.

Azaldu zuen ohiko egun bat nolako izan den.

Errutina ez zait askorik aldatu: 07:30erako dendara etorri izan naiz, eta denda zabalik izan dut 13:00a arte, beti bezala. Goizetan, jendeari arreta eskaintzeko astia soilik izan dut. Denda itxitakoan, etxera bazkaltzera joan, bazkaldu, eta berriro, dendara; denda pixka bat txukundu, eta ireki. Denda itxi, afaldu eta ohera. Azken batean, betiko egun bat. Gauza ezberdin bakarra: igandea. Igandetan etxean egon behar izan dut, eta izugarri eskertu dut. Jendeak dio ez duela etxean egon nahi, baina nik eskertu egin dut etxean ezer egin gabe egoteko egun bat izatea. Niretzako atsedenerako egun bat izan da.

Zein izan da egin duzun gauzarik bereziena?

Lanean pasatu dut denbora. Berezia edo ezohikoa, izatekotan, lanerako prestatzea izan da: maskarak eta eskularruak jarri, segurtasun neurriak hartu... Gainerakoan, ez dut ezer berezirik egin.

Beldurrik izan duzu konfinamendu egoeran? Zergatik?

Beldurra baino gehiago, errespetua ematen dit birusak. Dendan jende asko ibiltzen denez, inork kutsatuko ote ninduen errezeloa izan nuen hasiera batean. Denborarekin, baina, pasa egin zait, eta nik inor kutsatuko ote dudan izan dut kezka.

Zer izan duzu gogokoan egoera honetaz eta ber egin zaizu desatseginena?

Jendearrekin izan ditudan bakarkako momentuak eta bezeroekin izan ditudan zuzeneko hartu-emanak. Gauzarik desatseginena, berriz, egoerak gainezka egin didala. Une batzuetan, itota sentitu naiz. Hasiera batean, goiz eta arratsalde izan nuen denda zabalik, baina martxoaren 25etik aurrera, dendako atean itxi ditut arratsaldez. Hala ere, dendan pasa ditut arratsaldeko orduak ere, gauzak txukuntzen eta lana antolatzen.

Laburtu hitz batean konfinamendua?

Surrealista. ■



Jaione, Borja, Oinatz eta Ekhi

Zeinekin eta non pasa duzu/e konfinamendua?

Familian lau gara, Oinatz (5 urte), Ekhi (3 urte), Jaione eta Borja. Etxea bi solairutakoa da eta goikoa haurrak jolasean ibiltzeko prestatua dugu. Eguraldi onarekin hamaiketakoak eta meriendak balioan egiten ditugu, eguzki piskat hartzeko, mahai jolasetan aritzeko eta aprobetxatzen dugu.

Azaldu zuen eguneroko bat nola izan den?

Esnatu eta jantzi dena bat da, egun osoa pijaman ez pasatzeko. Gosaldu eta etxeko lanen bat egiten dugu, aspiradora pasatzeko burrukak izaten dira! Beste batzutan eskulanak, sukaldatu, esperimentuak... egin ditugu. Tarte honetan Borja edo ni Lurdesena jesten gara, gure eta gurasoen erosketak egiteko. Bi txikiek asko jolasten dute elkarrekin, beraien etxeak, motoak, kotxeak... egiten dituzte etxetik aurkitzen duten edozerekin. Gaur adibidez tailer bat muntatu dute, metroa eta destorniladorea hartu eta kotxeak konpontzen dabilta. Arratsaldean kirol piska bat egiten dugu, txikiek beraien zirkuoak muntatzen dituzte, saltoak, txiribueltak, birak... Ohe gainean saltoka eta batzutan aitarekin burrukatarra jolasten dira izerditan blai bukatzerarte. 8tan Goikobeiti saioa ez dugu galtzen. Nik telelana egiten dut eta momentu horietan aitarekin ibiltzen dira barre - algaraka eta Borjak ere bere momentua izan dezan txandatzen gara. Elkarlanik gabe ezingo genuke aurrera egin.

Egin duzun gauza bereziena zein izan da?

Ostiralak egun bereziak ziren itxialdia baino lehen, txutxe eguna baitzen. Egun berezi hori mantentze aldera goxoki batzuk gorde, aurpegiak margotu eta altxorraren bila antolatzen dugu. Beraiei galdetuta eskolako talderako prestatu genuen madalenen bideotutoriala izan zen momentu polit bat.

Beldurrik izan duzu konfinamendu egoeran? Zergatik?

Bai bion gurasoak arrisku taldekoak baitira. Gainera nireak ez dira hurbil bizi eta ez da gauza bera. Gaitzarekiko dugun ezjakintasunak oso urduri jartzen nau. Gero heriotz tasak eta kutsatuenak entzuten dituzu eta izua sartzen zaizu barrererraino. Gertukoren bat gaixotzen denean sortzen zaizun hutsunea barruan latza da. Berdin du koronabirusa izan edo ez, esandako ezjakintasunak urduritzen zaitu eta ez da joaten.

Zer izan duzu gogokoan egoera honetaz eta zer egin zaizu desatseginena?

Etxean denok batera jolastea ederra da, gu lauok bakarrik gaude, elkarrekin irri eta algaraka ibiliz, ez dugu inora iristeko presarik (bueno, 8tako zitara bai!), estresik gabe bizitzea ederra da. Haurrei kalera ezin dutela atera esatea ez da batere atsegina, beraien tristura aurpegian ikustea bezalakorik ez dago. Zaharrena gainera telebistan edo irratian entzundakoaz ohartzten da eta sufrimendua eragiten dio, heriotzak daudela jakitzeak... ez dira gai errazak haurrekin hitz egiteko, guri ere ezinegon handia eragiten digutelako.

Laburtu hitz batean konfinamendua?

Luzea

Beste zerbait gehitu nahiko zenuke/te?

Hasiera batean uste genuena baino hobeto daramagu, bi txikiek uste baino hobeto daramate eta horrek asko laguntzen du etxeko giroa lasaia izaten. Baina nabari zaie kalera atera behar dutela, lagunekin egon, korri, salto, algar... egin eta izerditan blai etxera itzuli. ■

Eneko Salinas

XXXXX



"Errugbian jolasean eta itsasontzian edo urazpian arrantzan disfrutatzen duen gaztea"

Kaixo, Eneko: aurkeztu zure burua, mesedez.

Eneko Salinas naiz, Itsasondon jaioa, 1995eko apirilaren 26an. Txiki-txikitik hemen bizi izan naiz, lagunak ere hemengoak ditut. Ikasketak Itsasondoko eskolan egin nituen lehen hezkuntza bitartean, eta herrian bigarren hezkuntzarik ez dagoenez, Ordiziara joan ginen ondoren. Han lagun berriak egin nituen, haiek errugbian ibiltzen ziren, beraz, ni ere animatu nintzen, probatzeko. Orain jokatzen jarraitzen dut.

Nola oroitzen duzu eskola-ume garaiko Itsasondo? Orduan ume gutxi izango zineten, eta zer oroitzen duzu?

Oroitzapenak onak dira, baina bai, eskolan oso ume gutxi ginen.

Zenbat zineten?

Nire gelan, guztira, sei; eta hiru maila desberdinetakoak.

Nolako ikaslea zinen?

Ez oso ona.

Eta, gero, esan duzun moduan, institutura Ordiziara.

Bai, salto handia izan zen. Pentsa, hemen hainbat adinetako sei lagun ginen, eta hara joan, eta adin bereko hogeitun lagun. Gainera, ez nuen inor ezagutzen.

Eta gero?

Institutua amaituta, batxilergoa egi-tera joan nintzen Goierrri eskolara, Ordizian hura ere. Behin batxilergoa bukatuta, goi mailako zikloa egin nuen, Arrasaten, mekatronika. Lanbide praktikak, berriz, Irizarren egin nituen. Praktikak bukatu eta astebetara, Irizarretik deitu zidaten lanean has-teko, eta bertan nago ordutik.

Arrasaten-eta, ikasketak hobeto?

Arrasaten ondo ibiltzen nintzen, egia esan, eta nahiko erraz atera nuen. Batxilergoa gehiago kostatu zitzaidan, zaila egin zitzaidan. Hiru urtetan bukatu nuen bi urtean egin beharrekoa, errepikatu egin bainuen.

Aitaren antzeko lana duzu, ezta? Bertan jarraitzeko asmoa duzu?

Bai eta ez. Ikasketak horretarako egin nituen, baina orain Irizarren, errenkadan nago eta gustura egiten dut lana.

Zenbat denbora daramazu Irizarren?

Lau urte, gutxi gorabehera.

Ormaiztegiko plantan, ezta? Berri bat ere zabaldu duten arren.

Bai Ormaiztegin egiten dut lana. Hala da, Adunan ireki dute berria.

Zer duzu gustukoena Itsasondotik eta zer gustatzen zaizu gutxien?

Itsasondotik lasaitasuna eta txikitako lagunak: Josu, Maddi, Ainara... horiek denak. Festetan ere saiatzen naiz, partidarik tokatzen ez bazait, ateratzen. Herri afarira joaten naiz. Gutxien gustatzen zaidana, berriz, zera da, lagun gehienak Ordizian ditudala eta bertara mugitu behar dudala. Dena den, mol datzen naiz, kotxea hartuta, edo oinez zein bizikletaz. Ni hemen, Itsasondon, gustura nago.

Aipatu duzu ikasle garaian Ordiziara joan, eta hango gazteak errugbian ibiltzen zirela. Horregatik sortu zitzaizun harra, ezta?

Hasieran futboleko eman nuen izena, baina oso txarra nintzen. Ordiziara joan arte ez nekien errugbia zegoenik ere, baina lagunak han ibiltzen ziren eta horregatik animatu nintzen.

Zenbat urterekin?

13 urterekin, gutxi gorabehera.

Zenbat urte daramatzazu orduan?

11-12 urte.

Jubenil mailan hasiko zinen orduan?

Ez, infantil mailan hasi nintzen. Kategoria bakoitzean bi urte izaten dira: infantiletan eta jubeniletan jokatu nuen. Kadeteak desagertu egin ziren, eta zuzenean senior mailara pasatu ginen. Klubeko bigarren taldera.

Zergatik desagertu zen maila hori?

Jende gutxi zegoelako. Beraz, zuzenean zaharrekin jarri gintuzten.

Eta orain?

Orain, lehen eta bigarren taldeetan jokatzen dut.

Zorionak. Profesionalak zarete, beraz.

Ez, etxeok ez gara profesionalak, baina baditugu zortzi-bederatzi profesional.

Itsasondoko lasaitasuna gustuko dut.**Errugbian jolasean gozatzen dut, ez dut beste helbururik bertan.****Olagarroak arrantzatzen ditut gehienbat.****Diziplina aldetik diot.**

Bai, diziplina zorrotzagoa da. Ondo entrenatu behar da.

Nola uztartzen da hori, profesionalak eta ez profesionalak?

Oso ondo. Giro ederra daukagu. Horiek ez dira festara etortzen, beraien lana betetzera etortzen dira. Baten bat badago bihurri samarra, baina...

Astean zenbat egunetan dituzue entrenamenduak?

Ba astean lautan. Astean hirutan talde osoa elkartzen gara entrenatzeko, eta astean behin, astelehenan, errehabilitazioa, gimnasioa eta halakoak egiten ditugu.

Gainera, asteburuan partidua.

Bai hori da.

Zer postutan jolasten duzu?

3/4ko lerroan hasi nintzen, baina duela hiru urte entrenatzaileak galdetu zidan ea aldaketarik nahi nuen. Eta flaker moduan hasi nintzen. Aurrelari, potoloekin batera. Postuagatik pisua hartu dut, 10 kilo.

Postuagatik?

Bai, hor aurrean jende handia dago; eta, bestela, gaizki pasatzen duzu. Ez naiz taldeko handiena, ezta txikiena ere, ondo moldatzen naiz.

Horretarako jarraibideren edo dietaren bat jarri al dizute?

Orokorrean ez, ez digute horrelako jarraipenik egiten. Arazoren bat baduzu, pisua galdu edo irabazi nahi baduzu edo arazoak badituzue mantentzeko, galdetu egin dezakezu; eta orduan bai, ematen dizute orientazioa. Entrenatzaile fisikoari galde diezaiokezu horrelakoetan. Bakoitzak bere burua zaindu nahi badu, laguntza eskatzeko aukera du.

Zein da zuen entrenatzailea orain?

Bi entrenatzaile ditugu, Iñigo Martias eta Aritz Garmendia.

Zer egiten du entrenatzaile bakoitzak?

Biek gidatzen dute taldea, baina bat aurrelariekin egoten da, eta bestea 3/4ko lerrokoekin. Gero badugu beste entrenatzaile bat, fisikoa dena. Beraz, taldeko bi entrenatzaile eta bestea fisikoa ditugu.

Hainbat herrialdeko kideak zaudete taldean. Eztabaidaren bat egon zen taldean horren harira, baina atzerritarrek ere badira. Nongo kideak dituzue?

Orain, gehien bat, Argentinakoak, 20 bat lagun badira. Gero hegoafrikar bat dugu, bi kide Fiji Uhartetako Errepublikakoak, beste bat Tongakoa eta beste bat Samuan edo hor ingurukoa.

Zuen arteko giroa ona esan duzu, baina nola moldatzen zarete elkar ulertzeko?

Badago ingelesa oso ondo menderatzen duen jendea, eta moldatzen gara.

Eta zu zer moduz ingelesarekin?

Ni, tira...

Orain arituko zara, agian, gehiago ikasten?

Kosta egiten zait askotan beraiekin komunikatzea, baina alboan ingelesez dakien norbait badut, itzulpena egiteko esaten diot. Ondo moldatzen naiz.

Beraien ama hizkuntza ingelesa da?

Ez dakit beraien artean zer hitz egiten duten, baina gurekin ingelesez egiten dute.

Beste herrialdekoak bai, baina estatu espainoleko jendea ere bada zuenean?

Ez, orain ez. Espainiako selekzioko kapitainak Ordizian jokatzen du, baina berez Argentinakoa da. Urte asko daramatza hemen, espainiar nazionalitatea du; eta, hortaz, Espainiako selekzioko kapitaina da.

Hasi zinenetik hona aldaketa asko nabaritu dituzu errugbian? Zu hasterako egongo zen atzerriko jendea, dena den.

Bai, ni hasterako baziren. Ez dut ikusi aldaketa handirik nik jokatzeko dudarik, baina badakit izan direla aldaketak hasieratik hona. Legeak, urtero ez, baina tarteka aldatzen dira, segurtasun kontuak direla-eta. Horiek aldaketak ekartzen dituzte.

Ohorezko mailan, partidak kanpoan izaten dituzue. Nola antolatzen duzue hau, bezperan joanda?

Bai, ohorezko mailan, partidak orokorrean igandean izaten dira, nahiz eta posible den beste taldearekin eta federazioarekin hitz eginda, partidua larunbatean egitea. Igandean bada, larunbatean joan, hotelean lo egin, partida jokatu eta etxera egiten dugu.

Ahal den azkarren etxera?

Bai, normalean partida bukatu ta ordubete ingurura ateratzen gara; astelehenean lanera joateko komeriak izaten dira, bestela.

Nola uztartzen dituzu lana eta kirola?

Ondo moldatzen naiz, ordutegi ona daukat. Asteleheneetik ostiralera lan egiten dut, eta asteburuan beti jai izaten dut. 06:00etatik 14:00etara egiten dut lana, eta arratsaldeak libre izaten ditut. Entrenamenduak eta gimnasioa egiteko ondo moldatzen naiz.

Errugbian ba omen dago tradizio bat hirugarren denbora deitzen diotena. Zer da hori?

Bai, partida bukatzeko modu hobereena da. Norgehiagoka amaitu ondoren, dutxatu eta elkarte batean edo zelaian bertan, bi taldeak elkartu eta garagardo pixka bat edanez elkarrekin mokadua jatea da. Guk badugu sukaldari bat, horretaz arduratzen den pertsona bat. Partida amaitu ondoren, arroza eta xolomoa-edo jartzen dizkigu. Valladolinen (Espainia), adibidez, bi talde daude, eta bakoitzak bere elkarte du; han oilasko hegalak-eta jartzen dituzte.

Lesioen kontua ohikoa da, izan duzu lesio garrantzitsurik?

Ez naiz asko lesionatzen den pertsona bat. Errugbi mailan izandako lesio garrantzitsuena klabikula desplazatzea izan zen, puskatu ez, baino mugitu egin zen. Bestela, bihurrituren bat, behatzen bat puskatuta edo halakoak izan ditut.

Horiek ohikoak izaten dira, ezta? Bai.

Zein helburu dituzu kirol mailan? Espainiko selekzioan jolastea? Euskal Herrikoan?

Helburu zehatzik ez dut, niri gustatzen zaidana errugbian jolastea da. Nik errugbian jokatzeko dut, baina teledibutazio-eta ez dut asko jarraitzen. Hemen ez dituzte teledibutazio partidua asko ematen. Lagunekin gelditzen banaiz, Ordiziara joan eta partidaren bat ikusten dut, selekzioa suertatuz gero, ondo. Horrekin nahikoa dut.

Behin kirol munduan hasita, parrandak ere zaindu beharko dituzu, nahiz eta zuen denboraldia motza izan. Noiz hasi eta noiz bukatzen duzue?

Parrandarena, tira... (barre). Denboraldi-aurrea abuztuan hasten dugu, eta denboraldia bera maiatza aldera amaitzen da. Sailkapeneko postuaren arabera izaten da, dena den. Alegia, seigarren postutik gora gelditzen bazara, play off-ak dituzu, eta horrek denboraldia hilabete gehiago luzatzen du. Postu horietatik behera, denboraldia lehenago amaitzen duzu.

Baduzu gogoan partida zailen bat?

Salbadorren aurkakoa beti da oso zaila. Irabazi, irabazi daiteke, baina akatsik eginez gero, beti harrapatzen zaituzte. Oso onak dira.

Izan al duzu aukera sei nazioen txapelketa, munduko txapelketa edo horrelako partida potoloren bat ikusteko?

Ez, zuzenean ikusteko aukerarik ez dut izan. Gustura ikusiko nuke selekzio handi bateko partidaren bat. Ingalaterra edo Zeelanda Berriko partidaren bat ikustea gustatuko litzaidake.

Taldeen aurrekontuetan ere desberdintasun handia izango dira, ezta? Hau da, talde batzuk ekonomikoki handiak izango dira, eta beste batzuk borondatezko lana izango dute oinarri.

Bai, goian dauden taldeek fitxaketan bidez egiten dute guztia. Valladolideko bi taldeak, adibidez, "Quesos" eta "Salbador", fitxaketekin osatutako taldeak dira, ia osotasunean. Gu, adibidez, laugarren gaude sailkapenean, eta bederatzi fitxaketa ditugu. Hortik behera ere badira fitxaketak dituzten taldeak. Gero badira Hernani bezalako taldeak ere, denboraldi erdian pare bat fitxaketa egin dituztenak. Emaitzak hobetzeko asmoz egin dute. Ez baduzu maila mantentzen, eta beste taldeek emaitza onak lortzen badituzte, behereko mailara zoaz, eta hori saihesteko egiten dira fitxaketak.

Kanpotik datozen jokalariek ez dira beraien herrialdeetako onenak izango, ezta?

Ez, hori da. Hona etortzen direnak, Zeelanda Berriko jokalarik bat, adibidez, hemen jaun eta jabe da, eta bere herrialdean, agian, bigarren mailako talde batean dago.

Nesken taldea ere badago Ordizian?

Bai, hala da, duela bizpahiru urte sortu zen. Lehen baziren mistoan jolasteko zuten neskek. Orain nesken taldea dago bertan. Gainera, badira Espainiako selekzioan jokatzeko duten bi ahizpa ordiziar ere. Madrilen bizi dira.

COVID-19 gaixotasuna dela-eta bizi dugun ezohiko egoera honetan, nola moldatzen zara, entrenamendu eta partidarik gabe?

Lanera joan behar ez dudanez, presarik gabe esnatzen naiz. Entrenatzaile fisikoak bidali zizkigun ariketa batzuk egiten ditut, ez gimnasioko intentsitatearekin, baina etxeko materialarekin egiteko modukoak. Nik pare bat pesa ditut, eta makil batekin zerbait sortu dut, moldatzeko moduan. Bideo deiarren bidez ere egoten gara, lehen entrenamendu aurretik ordu erdiko bilera



Gabonak ospatzen.



Itsasondoko herri eskolakin Pasaiko portura bisita.



Burgos taldearen kontrako partidua.



Urpeko arrantza praktikatzen.

egiten genuen, entrenamenduen nondik norakoen azalpenak entzuteko, aurreko asteko partidako bideoren bat ikusteko eta hobetzekoak identifikatzeko. Orain horiek ez, baina partida onen bat ikusten dugu, bertatik zer ikasi dezakegun ateratzeko. Horrelaxe egiten dugu, entrenatzaileak hitz egiten du, tarteka zerbait galdetzen digu, eta hor gabiltza, errugbiaz hitz egiten.

Beraz, orain pesak egin eta egin, edo korrika egiteko zintarik baduzu?

Ez, baina fisikoa zaintzeko beste modu batzuk badira: abdominalak, saltoak, flexioak... denetik.

Eta orain nola gelditu da denboraldia?

Ez dakigu. Oraindik 5- 6 partidu gelditzen ziren play off-erako eta gu ziu- rrenik klasifikatzeko moduan ginen; laugarren gindoazen, eta ondo, gainera. Hilabete falta zitzaigun jokatzeko, baina horrelaxe daude kontuak.

Noiz arte duzu asmoa jarraitzeko?

Ez dakit, aspertu arte. Ni ez naiz profesionala, beraz, aspertzen naizen

arte. Ikusten dudanean ez aurrea ez atzera nabilela, pentsatuko dut.

12 urte daramatzazu jada.

Bai, baina hori txikitatik zenbatuz gero. Seniorretan ez daramatzat urte asko, gaztea naiz oraindik.

Zenbat urte dituzu orain?

26.

Bazoaz aurrera zu ere.

Bai.

Lana, errugbia, errugbia, lana... beste zaletasunetarako denbora baduzu?

Badaukat denbora. Badaukat beste afizio bat ere, arrantza. Urpeko arrantza egiten dut. Hori normalean udan egiten da, eta ordurako denboraldia amaituta egoten denez, ondo antolatzen naiz. Horrez gain, eskia- tzeraz joatea ere gustatzen zait. Ne- guan ere partida guztiak ez ditugu segidan izaten, hau da, agian hiru partidu jokatu ostean, asteburu ba- tean atsedena tokatzen zaigu. Or- duan aprobetxatzen dut.

Nola egiten duzu urpeko arrantza? Zein arrain mota harra- patzen dituzu?

Bakarrik edo lankide batekin joaten naiz, hark ere gustuko du-eta. Nik, gehien bat, olagarroak harrapatzen ditut. Gainera, horren harira jarri di- date ezinena, Pulpo.

Eneko Salinas, ezizenez Pulpo, beraz. Kantauri itsasoan egiten duzu arrantza?

Bai, aitzak itsasontzia du, eta Getaria edo Zarautz aldea joaten gara. Bes- tela, kotxea hartu eta Donostiara joa- ten naiz.

Horrelakoetarako esaten dute kanpoan badirela leku apro- p- sak, Fiji aldean, adibidez.

Bai, hala da.

Bertara joan beharko duzu, orain kontaktuak ere badituzu, gai- nera.

Bai, taldekideei esango diet bertara joan nahi dudala.

Urak argiangoak eta garbiangoak direla esaten da.

Bai, hemengo itsasoa nahiko hustuta dago, arrai asko-asko ez dira ikusten.

Ura zikinagoa da, baita ere.

Ilunagoa da, mediterraneoan adibi- dez argiagoa da, gardenagoa.■

Ordenagailu bat eta pertsona baten gorputza konparatzen

Gure gorputzeko eta ordenagailu bateko atalek hainbat antzekotasun dituzte. Hori aprobetxatuz, ordenagailuen oinarrizko funtzioak modu errazean azal daitezke.


Ziurrenik zuetako askok badaki ordenagailuen atal batzuek gure gorputzaren antzeko eginkizunak dituztela. Hala ere, errepasso bat egingo dugu; izan ere, ondo etorriko zaigu, gure ordenagailu zaharra aldatzeko asmoa badugu.

Burutik hasiko gara: ordenagailu baten disko gogorrek gure garunaren funtzio bera du. Bertan datuak gordetzen dira; gure garunean, berriz, oroitzapenak gordetzen dira. Disko gogorren kasuan, zenbat eta tamaina handiagoa izan, orduan eta datu gehiago gorde daitezke.

Buruarekin jarraituz, gure begiak web-cama izan daiteke, ordenagailuaren kasuan. Belarriak, berriz, mikrofono baten parekoak dira, guk esandako guztia gure ordenagailuak entzun dezan. Gure ahoa bozgorailua da ordenagailu batentzat, bertatik ordenagailuaren soinuak erreproduzitzen direlako.

Nerbio sistema, berriz, Memoria Ram-a izan daiteke. Ram memoriaren lehenasuna da programek beraien eginkizunak behar bezala egitea. Adibidez, gure nerbio sistemari esker mugi gaitzke, ikusi egin dezakegu eta abar. Memoria Ram-ak, berriz, instalatutako programak exekutatu ditzake, ordenagailuaren temperatura kontrolatu, 3D objektuak irudikatu eta abar.

Gibela edo, hobeto esanda, gure elikadura sistema guztia, ordenagailu bateko elikadura iturriarekin konpara daiteke. Azken finen, guk energia behar dugu



gure eguneroko gauzak egiteko. Horretarako, jan egin behar da, eta hori ikusita, elikadura iturriaren funtzioa berdina da. Etxeko argindarretik behar duen elektrizitatea hartzen du, energia bihurtzeko.

Gure birrikak, berriz, ordenagailuaren haizagailuak izango lirateke. Alde batetik, haizagailuek kanpoko airea jasotzen dute (arnasketan bezala), ordenagailuaren tenperatura ahal den hotzera mantentzeko. Eta, beste alde batetik, beste haizagailu bat dago, ordenagailuaren barruko aire beroa kanporatzen duena.

Betidanik esan da ordenagailu baten bihotza bere mikroprozesagailua dela. Azken finean, gure bihotza arduratzen da gure gorputzeko atal guztiek ondo funtziona dezaten. Mikroprozesagailuak gauza bera egiten du, ordenagailuaren atal guztiak ondo sinkronizatuta joan daitezen arduratzen da.

Eta, bukatzeko, kableak gure zainak bezala izango lirateke. Bertatik energia indarra eta informazioa pasatzen dira. Eta hezurak, berriz, ordenagailuaren plaka nagusia izango lirateke. Bertan, ordenagailuaren osagarri guztiak jartzen dira.

Ez dakit konparaketa horiek garbi gelditzen diren. Baietz espero dut, halere, azalpen hauek nahiko orokorrak izan dira. Gehiago zehaztu daitekeen arren, nahasgarria izan daiteke. Beste momentu batean, xehetasun gehiagoekin azalduko ditugu atal hauek guztiak, banaka. ■

Ane Plazaola

Astigarragakoa jaiotzez, Beasainen urte mordoxka egindakoa, Itsasondon topatu du bilatzen zuen patxada: Eskola txikia, herri euskalduna, bertakoa sentiarazten zaituzten herritarrak... ez du gehiago behar. Beno orain, mendi tontorren bateko haizea gustura hartuko luke...



Noiz etorri zinen Itsasondora?

Ofizialki 2017ko azaroan, baina urtebete lehenago hasi ginen hemen bizitzera egiten.

Non bizi zinen lehen?

Azken hamaika urteetan Beasainen, baina izatez Astigarragakoa naiz.

Zergatik erabaki zenuen bizitzera Itsasondora etortzea?

Guraso izan ondoren, Beasain bezalako herri handi batean bizitzeari oztopoak aurkitzen hasi ginen, gure alabek guk bizitako haurtzaroaren antzeko zerbait edukitzea nahi genuen. Beraz, argi ikusi genuen horretarako herri txiki bat behar genuela.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehenengo egunaz?

Ez dut lehen eguna oroitzen, lehenagotik ere askotan etortzen baikin. Haatik, hasieratik arreta deitu zidana herriari duen ekiteko gaitasuna izan zen.

Zein lanbide duzu?

Abaltzisketako eskola txikiko irakaslea naiz.

Astigarragako zeren falta sumatzen duzu?

Nire familia eta lagunena; batez ere, familiarena.

Eta Beasaindik?

Oraintxe bertan, ezer gutxi.

Itsasondoko zer ez zaizu gustatzen?

Gauza gutxi, agian, eguzkia azkarregi ezkututzen dela.

Eta zer duzu gustuko?

Giroa, herritarren gertutasuna, bertakoa izango bazina bezala sentiarazten zaituzte.

Zein zaletasun dituzu?

Nire lanbideaz gain, furgoneta hartu eta familian bidaiak egitea.

Janari bat?

Txuleta eder bat. Sagardotegian bada, hobe.

Edari bat?

Garagardoa.

Itsasondo edo Goierriko txoko bat?

Goierrikoa ez, baina bai gertukoa, Abaltzisketako eliz atzea.

Amets bat?

Oraingo egoera hobetzea, mendi gailur batean eseri, eta bidez eta hango haize garbiaz gozatzeko.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Lagun on baten bertso musikatua.

Zeri diozu beldurra?


Heriotzari.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Nire alaben lorpenek.

Itsasondon biziko ez bazina?

Eskola txikia duen beste herri txiki euskaldun batean. ■



Itsasondoko udalak eskuarte dituen proiektu batzuk

Bizitasuna ezaugarri nabarmen gisa duen gizarteak beti izaten du zer konpondu edo zer berri. Itsasondon ere hori gertatzen zaigu behin eta berriro. Udaletik ustez zerbait lortu dugulakoan poza sentitzen hasten garenerako, han eta hemen behar berriei heltzeko aukerak sortzen zaizkigu.

Oraingo honetan, hirigintza mailan udalak esku artean dituen hiru proiektu azalduko ditugu. Ez dira bakarrik, baina bai aurreratuenak; eta, bideratuta daudenez, datozen hilabeteetan herritar guztiok izango duzue nolakoak izango diren erabakitze aukera.

Komun moldatua eta irisgarria frontoian

Herrigunean egokitutako komunik ez izateak hainbat arazo ekartzen ditu. Hori dela eta, proiektu bat egin da, irisgarritasuna bermatu, eta frontoi azpian dauden aldagela eta komuna egokitzeko.

Komunetako sarrera irisgarria izan dadin, eskailerak kendu eta arrapala bat egingo da. Barruko gune berriak, aldagela bat izango du alde batera, eta bi komun bestera, hauetako bat egokitua. Komun horiek jendearentzat irekita egongo dira.

Lan horiekin batera, bertan dagoen haurrentzako parkea berritzeko aprobetxatuko da. Aurki izango dugu denok parke berria nolako izatea nahi dugun aukeratzeko parada.

Irisgarritasunarekin jarraituz, Bidearte eta Gure Ametsa bitartean dagoen espaloiak duen egoera ikusita, egokitu egin nahi da; eta, aurrekoarekin batera, irisgarritasun obretarako Eusko Jaurlaritzak atera zituen dirulaguntzak aprobetxatuko dira. Bi proiektuen artean, 100.000 euroko aurrekontua osatzen da, baina dirulaguntza horietatik jasoko dugu erdia, 50.000 euro.



Errota frontoiko komunak



Pasonibela

ADIF, trenbideen kudeaketaz arduratzen den enpresa publikoa, hainbat herritan dauden pasonibelak kentzen ari da, eta Itsasondokoaren txanda ere iritsi da.

ADIFeko teknikariekien ikusi zen bezala, aukera gutxi daude, bidea azpitik edo gainetik egitea ezinezkoa delako. Azpitik ezin da, ibaiak duen maila baino beherago geratzen delako eta; gainetik ere ez, autobidea dagoelako.

Aukera bakarra da trenbidea eta autobidearen artean bide berri bat egitea, tunel pareraino; eta, hortik, ezkerre bira eginda, ibaia zeharkatzea Elordiko zelairaino iristeko. ADIFek proiektua egiteko lehiaketa udazkenean atera zuen, eta datozen asteetan esleitu du.

Proiektua egingo duen enpresa zein den jakiten denean, aukera egongo da proiektua idatzi behar dutenekin egon eta iritziak eta gogoetak helarazteko.

Elordiko zelaiari dagokionez, aruten bereganatuko du udalak gune hori. Pasonibela kentzeko bidez gain, Beko-kaleri iparraldetik errepiderako irtenbidea emateko erabiliko da. Beraz, batera antolatu beharko dira pasonibela kentzeko egingo den bidea eta Beko-kaleri errepiderako irteera. Hain zuzen, horixe izango da lehen pausoa Beko-kale berritzeko proiektua martxan jartzeko.

Eskola berriak

Urkiye herri eskolako eraikuntzen egoeraz kezkatuta, 2010ean hasi ziren udala eta eskolako komunitatea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako arduradunekin batera, ikastetxeak zer nolako baldintzak bete beharko litzuzkeen eta zein kokapen izan beharko luken aztertzen.

Ordurako garbi zegoen eraikin berriak behar zirela, oraingoek ondotoxo ordaindu baitute bere burua. Hasiera hasieratik, kokapena izan zen zalantza handienetakoa. Aldapa faltarik ez duen herrian bizi gara, eta horretara moldatu behar. Aurreikusten ziren aukera guztiek zituzten alde onak eta txarrak.

Eusko Jaurlaritzako hezkuntza saileko arduradunekin behin eta berriro bildu ondoren, orain urtebete pasatxo izandako bileran adostu genituen, azkenean, ikastetxe berriak bete beharko litzuzkeen gutxieneko baldintzak, eraikinaren tamainari eta espazio libreen azalerei dagozkienak.

Horrenbestez, ekainean Aginagan (Usurbil, Gizpukoa) ospatu zen Eskola Txikien jaian sortu zen txinparta. Hezkuntza sailburuak oholatzatik egin zuen hitzaldian, beste batzuen artean, Itsasondoko Urkiye Herri Eskolan ikastetxe berria egitea beraien lanen plangintzan jasota zeukatela esan zuenean.


Hori entzunda, gauzak azkartu beharra zegoen; eta, gehiegi ez atzeratzeko, egun eskolak duen kokapena erabiltzea ontzat eman zen, kokapen horrek Hezkuntzak jartzen zituen baldintzak betetzea lortzen bazuen, behintzat. Hori jakiteko, arkitekto lantalde bati eskatu zitzaion eskola berria orain dagoen lekuan egiteko aukerarik ba ote zegoen aztertzeko; eta, egokitzea lortuz gero, aurreproiektu bat egiteko.

Aurreproiektu honekin, Hezkuntzako arduradun eta teknikariekien joan den iraillean izandako bileran, erabaki itxaropentsuak hartu ziren. Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen eraikitze proiektua eskatuko zuela, eta lan hori bere gain hartuko zuela. Bestalde, udalak behar den lursaila jartzeko konpromisoa hartu zuen; eta, obrak irauten duten bitartean, behin-behineko eskola udaletxean moldatzeko erabakia hartu zuen, jangela beharretarako tabernarekin kontaktuta.

Hortik aurrera, falta ziren lursailak lortzeko, udalak Hiri-gintzako jarduketa programa enkargatu du. Jendaurrean egon den bitartean kontrako erreklamaziorik ez du jaso, eta onartu egin da. Prozedura hori beharrezkoa izan da lursaila bereganatzeko.

Orain herritarrengana pasatu da txanda berrito: Jaurlaritzak proiektuaren enkargua egiten duenean, eraikin eta instalazioek behar dituzten ezaugarriak proposatu beharko dira, eta denok izango dugu aukera eskola berrian zer eta nolakoa nahi dugun adierazteko.■

Herritik lasai eta libre



1. GELTOKIKO BIDEA

Iluna egoten da eta goizetan eta gauetan beldurra ematen du bertatik igarotzea

2. GELTOKITIK ARAMA BIDEA

Ez dago argirik bide osoan eta Aramarainoko bidea luzea izan daiteke ilunpetan.

3. PAIMASA PASABIDEA

Autobidearen azpiko pasabidea/tunela argirik gabe dago.

4. BEKO KALEKO PARKEA

Iluna dago.

5. PASABIDEA

Ez dago argirik

6. BEKO KALE

Orokorrean argiteria exkas. Mantenu eskasa eta itxura "beldurgarria".

7. JASO KANPA

Gauetz ezin da ibili. beldurra ematen du. Ez dago argirik, landareta zaindu gabe, mantenturik ez, ezkutaleku asko.

8. LEGORRETARA BIDEGORRIA

Iluna, ez dago argirik.

8. KALE NAGUSIA

14B-12A etxebizitza tarteko iteerrarik gabeko garaje txokoa. Iluna, argi gutxi

1. ADINEKOEN PARKEA

Iluna.

2 eta 3. SAN JUANERA BIDEGORRIA

Orokorrean argia baldin badago ere, beldurra ematen du gauetz bertatik bakarrik igarotzea, ezkutaleku asko daude.

4. OTAMENDI


Otamendi Baserriko lur zorua harriz eta zuloz egoteaz gain ez dago inongo argirik.

5. BEITIKO ITURRIA

Aska dagoen gunea iluna eta beldurgarri samarra da.

6. GOIKO KALERAESKILARAK

Argia badago ere mantenimendua eskasa da eta itxura "txarra" du. Gauetz bertatik igarotzea beldurra ematen du. Ezkutalekuak ditu eta izkinetako landaretzazaindu gabe.



Herri Hezitzaileen Gutuna jarraituz, Hirigintzaz eta Generoaz mintzo garenean, herri bizigarriak, adeitsuak, atseginak, gozoak eta tolerantreak eraikitzeaz ari gara. Norbanakoaren erritmoak eta taldearen erritmoak doitzen dituen herria, pertsona guztiak espazio eta eraikin publiko guztietan sartu ahal izango direla bermatzen duen herria, memoria kolektiboa balioesten duen herria eta inguruarekiko harmonia bilatzen duen herria.

Hori dela eta, Itsasondoko Udalak HERRI SEGURUA-REN MAPA egitasmoa gauzatu du. Miren Zubeldia Oruna arkitektoaren laguntzarekin, herriko emakumeek (haur, heldu, gazte) segurtasunik gabekotzat jotzen dituzten herriko tokiak zeintzuk diren identifikatu dituzte.

Proiektuaren helburu nagusia da Itsasondoko "herri debekatu"-ri buruzko lehenengo diagnosi orokorra lortzea, emakumeen segurtasunari eta pertzepzioari dagokionez. Honakoak dira helburu zehatzak:

- Puntu ilunak identifikatzea.
- Emakumeek udalerriko erabakietan parte har dezaten ahalbidetzea eta animatzea.
- Emakumeak espazio publikoaren erabiltzaile trebetzat hartzea.
- Itsasondoko Udalak konpromiso irmoa hartzea udalherria hobetzeko, emakumeek proposatutako beharrak eta hobekuntzak proiektuan kontuan hartuz.
- Komunikazio bide bat sortzea emakume, hirigintza, lan-teknikari eta udal-zerbitzuen artean.

Azaroaren hasieran galdetegiak banatu ziren herritarren artean, beraien iritziekin bete, eta herriko hainbat puntutan zeuden buzoietan utzi behar zituzten. Behin hori eginda, azaroaren 25ean identifikatutako tokiak aztertzeko ibilaldia egin zen.

Ondoren, mapa eta txosten bat prestatu eta bertan emakumei segurtasun eza eragiten dieten lekuak eta hori eragiten duten arazoak identifikatu ziren, besteak beste, hauek:

- Leku bakartia egunez.
- Leku bakartia gauez.
- Inguruan gordelekuak edo ezkutalekuak daude.
- Entzuteko edo entzuna izateko zailtasuna duen gunea.
- Ikusmen eremua eskasa.
- Gaueko argiteria urriko gunea.
- Urbanizazio mantenu eskasa.
- Landaretzak ikusgarritasuna kentzen du.
- Ikara sortzeko moduko pertsonen presentzia.
- Giro kezagarriko tokia.

Egitasmo honen informazio guztiak eta txosten batean islatu zein aztertutako puntu guztiak argazki bidez azalduko dira, laburpen-fitxak eta hobetzeko proposamenekin batera. Informazio hau aztertu ondoren, azaldu diren arazoak bost taldetan bereizi dira:

1. Argiteriarekin arazoa duten puntuak, bai mantenu eskasa izan dutelako, bai argia eskasa delako.
2. Jabetza pribatua duten gunek. Gune hauetako arazo nagusia atariak dira. Kasu batzuetan, irtenbiderik gabeko kale estuak eta, beste batzuetan, ezkutalekuak sortzen dituztenak. Horrez gain, argi gutxiko gunek dira, eta landaretzak duen mantenuagatik argiaren arazoa areagotzen da.
3. Hirigintza arazoak. Garai bateko hirigintza dela eta, badira argi natural gehiegi ez duten edota ikuseremu urria duten kaleak, beraien proportzioengatik, hau da, eraikin altuak eta kale estuak direlako, edota kota ezberdinak gainditzeko egin diren eskaileren garapengatik. Hirigintza falta edo hirigintza egoki baten faltagatik ere gune deserosoak sortu dira.
4. Trenbideak eta N-1 errepideak sortzen dituzten arazoak. Herriko zenbait auzotara joateko trenbideak eta N-1 errepideak jartzen duten traba gainditzeko hainbat tunel daude. Tunelei, berez duten ikuseremu txikiaren arazoak gain, mantenu eta argi eskasiaren arazoa batzen zaie.
5. Auzo arteko komunikabidea. Orografiagatik, herrigunea eta auzo ezberdinen arteko loturak puntu ilunak izaten dira. Izan ere, lotura horiek gune bakartiak izaten dira, eta etxebizitzarik ez dagoenez, ez dago inor oihu, zarata edo halakorik entzuteko.

Laburbilduz, esan genezake argiteriaren arazoa duten gunek, epe laburrean eta erraz konpon daitezkeen gunek direla, eta jabetza pribatuaren arazoa duten gunek jabeekin aztertu beharrekoak direla. Aldiz, hirugarren, laugarren eta bosgarren taldeetan bildutako gunetako arazoak plangintza berrian kontutan hartu beharrekoak dira, etorkizunean ahal den neurrian saihesteko, gaur egun jadanik existitzen diren arazo horiei konponbidea ematea oso zaila baita.■

EH Mus txapelketa

Gipuzkoako mus txapeldunordeak dira Itsasondoko Jose Ignazio Arbilla eta Lontxo Arza. Orioko Ibai Esoain eta Jon Ubegun muslari bikotearen aurka galdu zuten finala. Lehenengo hiru kanporaketak Baratze pilotalekuan jokatu ziren; eta azkeneko fasea Elorri elkartearen jokatu zuten 16 bikotek. Finalerdietan, Itsasondo-Zarauz eta Aia-Orio partidak jokatu ziren. Azkenera arte iritsi direnak oriotarrak eta itsasondoarrak izan ziren, eta oriotarrek jantzi zuten txapela.

Otsailaren 8an, Gipuzkoako finalean 118 bikotek hartu zuten parte; horietatik 35 goierritarrak. Euskal Herriko final handirako 32 bikote sailkatu dira. ■



Txokoko berrantolaketa

Auzolanean egokitu da frontoiko txokoetarikoa bat. Hasteko txukunketa egin zen espazioan, gunea garbituta eta margotuta. Ondoren, herritar talde batek txoko batetik bestera pasa zituzten trasteak; bota beharrekoa bota egin zuten, eta material erabilgarria txukun jarri zuten. ■



Euskara aztergai

UEMATik bideraturiko Euskara tailerra izan genuen, otsailaren 28an, kulturgunean. Euskararen arnagune izan arren, Itsasondok badu gazteekin gaia lantzeko beharra.

Parte hartu zuten gazteek galdera erantzunen dinamikan aritzeaz gain, euskal kulturatik zer kontsumitzen duten ere aztertu zuten, eta eguneroko hizkuntza ohiturak ere eztabaidagai izan zituzten. Parte-hartzaile bakoitzak bi konpromiso hartu zituen hizkuntzaren erabilera areagotzeko, animo! ■



Sukaldaritza tailerra

Ohikoa dugun moduan, aurtengoan ere lker Mendizabalen eskutik sukaldaritza tailerra izan genuen Arbel-aitz elkartearen. Otsailaren 28an, iluntzean, 22 lagunek, azalpenak azalpen, menu ederra osatzeko aukera izan zuten. Hasteko, bakailaoa, patata eta piper berdearekin, txakolin saltsan. Ondoren, Oilaskoa, Thai (Tahilandiarr) erara; eta, postrerako, tarta erraza, gaztarekin ta marrubiekin. Giro paregabean aritu ziren parte-hartzaileak, eta kozinatutakoa dasatzeko aukera ere izan zuten! Hurrengora arte! ■



Ziklo-krosa

200 txirrindulari inguru gerturatu ziren Itsasondora, otsailaren 29an jokatu zen ziklo-kros lasterketara. Dena ongi joan zen. Eguraldia zela-eta, iaz baino jende gutxiago etorri zen, eta ibilbideko zati batzuk moldatu behar izan ziren, zirkuitua erabat lokaztuta zegoelako.

Halere, aurtengo zirkuitua aurreko urtekoa baino egokiagoa izan zela baloratu zen. Jendea gusturago geratu zen. Izan ere, dena herrigunean izan zen, eta ikusleak begi-bistan zituzten txirrindulariak denbora osoan. Hurrengo urtean zirkuito bera egiteko asmoa dago, beraz. ■



Samara Velte hitzaldia

Emakumeen nazioarteko egunaren harira, Samara Velte idazle eta ikerlaria kulturgunean izan zen martxoaren 5ean, bortxaketaren kulturaz aritzeko eta, bide batez, *Nik sinisten dizut* liburuaren aurkezpena egiteko. Jende gutxi gerturatu bazen ere, gaiaren interesa dela-eta, bertan izan zirenen parte-hartzea handia izan zen. Plazer bat da halako gaiez hitz egiteko aukera izatea. ■



Emakumeen nazioarteko eguna

Martxoaren 7an, 41 emakumek egin zuten bazkaria Arbel-aitz elkartearen. Urtero legez, Iker Mendizabalek prestaturiko menu sorpresa dastatu zuten. Patata frijitu eta arrautzen bertsio berriak ikaragarriko arrakasta izan zuen, baita txakolin erara egin-dako bakailao eta patatek ere.

Ondoren, Berastegiko Mireia Garaiburu eta Irati Saizarren antzerkiak barre eta algarez betetako bazkalostea utzi zien bertaratutakoei. Gero, umore onari eutsiz, M8ko manifestazioarako eskualde mailan zabalduko emakumeen dantza ikasi zuten.

Martxoaren 8an, berriz, eskualde mailan deituriko manifestazioan parte hartu zuen herritar ugari. Bertan izan ziren herriko batukaleroak ere, festa giroan aldarrikapena egiten. ■



Liburuak etxera zerbitzua

Konfinamenduak irauten duen bitartean, "Liburuak etxera" zerbitzua martxan jarri dugu. Astero liburuak eskuratzeko aukera egongo da. Eskaerak, asteazkena arratsaldeko 20:00ak arte jasoko dira: **gazteria-kultura@itsasondo.eus** helbidera idatziz. Ostiral goizean etxeetara eramango zaizkizue liburuak. Segurtasun neurriak betez. Ez dira itzuli beharko, jakinarazpen berririk izan arte. Helduon katalogotik izenburu zehatzak eskatu daitezke, (eskaera orokorrak ere) haurren sailean eskaera orokorrak egingo dira. (Eskaera orokorra: Adb. nobela beltza gazteleraz, edo 6-8 urte bitarteko ipuin bat...

Liburu aukera ikusteko:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus> ■





(errezeta)

Pantxeta muztio eta erromeroarekin konfitatuta

Osagaiak:

- Pantxeta 1.5 kg
- Digi-muztioa edo muztio zaharra
- Gatza
- Piper beltza
- Patatak, osagarri bezala

Nola egin:

1,5-2 kg-ko pantxeta bat erosiko dugu, eta 24 ordu lehenago itsas gatz eta piperbeltzetan jarriko dugu. Errezeta oso erreza da, lehen fase honekin, zaporea kontzentratzea eta txerri-pantxetari ahalik eta samurtasun handiena ateratzea nahi dugu.

Pantxeta 6 orduz 150 gradutan izango dugu labean. Ondoren, labeko erretiluan geratzen den olioari, hiru goilarakada muztio gehituko dizkiogu.

Azkenik, errazioka moztu eta azala goraka duela, 220 gradutan jarriko dugu labean, 12 minutuz, kurruskari gera dadin. Plater honi laguntzeko egokiak dira patata purea edo barazkiak. ■



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Liburu gomendioa

Mi carta más larga



Idazlea: Mariana Bá
Itzultzailea: Sonia Martínez
Argitaratutako data: 2003
Argitaletxea: Altaya
Orri kopurua: 140

Luzea eskutitz bat izateko, baina laburra eleberrirako. Oso laburra. Gehiago jakiteko gogoz uzten zaituen horietakoa. Zer gertatuko zaio duela gutxi alargundu den Ramatoulaye emakume senegaldarrari? Zein etorkizun izango du, duela urte batzuk dibortziatu zen eta Ramatoulayeren eskutitza jasoko duen Aïssatou lagunak?

Duela ez asko Itsasondon bizi den senegaldar batek haren kulturari buruz gehiago jakiteko gomendatutako liburua duzue. Mariama Bâ-ek 1979an, 51 urterekin, idatzi zuen lehen eleberrria da, frantsesez idatzia eta gaztelaniara eta katalanera itzulia. Antzematen da barru-barrutik idatzitakoa dela, eta horregatik datorkio hain ondo eskutitz formatua.

Liburua irakurriz, gure kulturaren eta haienaren arteko desberdintasun handiak nabaritu dituzu: poligamia da, adibidez, eskutitzaren abiarazlea. Baina narratioak duen gakorik interesgarriena, nire ustez, bi kulturen antzekotasuna da: zein da emakumeak jendartean jokatzeko duen papera? Zeintzuk dira gizon eta emakumeon arteko botere-harremanak? Adibidez, liburuan bada pasarte bat, Senegalek independentzia lortu eta hamarkada batera eskutitza idazten ari den Ramatoulayeren alabari ahotsa ematen diona: neska gazteak dio bere herriaren eta emakumeen etorkizunarekiko interesa noski baduela, baina alderdikeriek eta botere-goseak politikari uko egitera bultzatzen dutela.

Euskal Herria 1979an eta Senegal 1979an oso desberdinak izango ziren, baziren; baina ez uste duguna bezainbeste. ■





Espazioen erabilera arauak

Asko dira Itsasondoko herrian herritarren eskura dauden zerbitzuak: haur txokoa, gaztelekua, liburutegia, kulturgunea, materiala gordetzeko txokoa... Azkenaldian, ordea, zenbait arau-hauste eta erabilpen desegoki egin dira espazio horietan, eta horri irtenbidea eman nahian ordenantza bat zehazten ari da; arautegiak zehaztu, zabaldu eta errespetatzeko asmoarekin.

Arau orokorrak zehaztuta badaude ere, Herri Bizitza batzordean adostu eta udalbatzak onartu behar ditu. Kontua da COVID-19ak sorturiko alarma egoera dela-eta, prozesua gelditi dago.

Hala ere, arauak zehaztean, hainbat informazio bidetatik emango zaiuzue horien berri. Dena den, aurreratu nahi dugu espazioetara sartzeko txartelaren mugimenduei jarraipena egingo zaiela, arazoren bat sortzen denerako.

Espazioak erabiltzeko herritarrok dugun txartela norbanakoa da, eta derrigorrezkoa izango da, espazioetara sartzean, erabiltzaile guztiok txartela pasatzea. Erregistro horrekin, espazioen erabilera neurtzeaz gain, bertan egon diren zerrenda bat jasotzen da; eta, arazorik suertatuz gero, bertan izan diren pertsonekin argitu daiteke ezbeharra.

Ez badugu fitxatzen, ez dakigu zenbat jendek erabiltzen duen zerbitzu hori. Horrenbestez, bertan egon direnak nor diren ez badakigu, ezin da neurririk hartu arau-hausteen aurrean.

Jakin badakigu, ohituraz, ez dugula guztiok fitxatzen; eta, orokorrean, sartzan lehena denak irekitzen duela atea, gainontzekoak ere sartzeko. Halere, aipaturiko arazoak saihesteko, ohitura hori aldatu egin beharko da. Laburbilduz:

- Espazio batera sartzean pasatu zure txartela.
- Ez utzi inori sartzan, txartela pasatu gabe (zure ardura bihur daiteke, zerbait pasatzen bada).
- Txartela pertsonala da (adin txikioen kasuan gurasoena), eta ezin zaio inori utzi (zure ardura bihur daiteke, zerbait pasatzen bada).

Garrantzitsua da erabilpen egokia egitea. Guztiok erabiltzeko espazioak dira, eta arazoak sortuz gero, neurri murriztaileak ezartzen badira, guztion kalterako izango dira.

Telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkarte	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria (((45. zk))) Martxa 2020

Ale honetan parte hartu dutenak:

Aiora Zurutuza
Asier Arbilla
Asier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Emma Arrondo
Eneritz Albizu (UEMA)
Erkuden Mendizabal
Eskolako irakasleak
Haurreskolako hezitzaileak
Iñaki Aizpuru
Javi Gomez
Jone Etxeberria
Maider Saez de Navarrete
Maite Lasa
Nagore Etxeberria
Nerea Manzisidor

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572



Kultur Agenda

Covid 19 birusak sorturiko pandemiaren aurrean, eta honen zabalpena ekiditeko dauden neurriak jarraituz, kultur ekimenak bertan behera gelditu dira momentuz. Egoera onera egin ahala, aurreikusitako ekimenak eta berriak jarriko dira martxan.

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
ABUZTUAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**

